

Barne-kudeaketa: akreditazioak eta armak

Tratamenduaren arduraduna

Segurtasuneko Sailburuordetza – Euskadiko Poliziaren Datuak Prestatzeko Zentroa (EPDPZ),
Segurtasun Saila
Donostia-San Sebastián 1, 01010 Vitoria-Gasteiz, Araba
Telefona: 945 018 000
Web-orria: <http://euskadi.eus>

Datuak babesteko ordezkaria

Euskadiko Poliziaren Datuak Prestatzeko Zentroa (EPDPZ)
Larrauri Mendotxe Bidea 18. 48950.- Erandio, Bizkaia
dpd-dbo@ertzaintza.eus

Tratamenduaren helburua

Armak ematea, berritzea, kentzea edo suntsitzea, bai eta bereizgarriak, enblemak, profesional-txartela, erretiratu txartela... ere, eta gai horiekin erlazionatutako arau-hauste administratiboak.

Oinarri juridikoa

- Tratamendua beharrezkoa izatea aplikagarriak diren lege-eginbideak betetzeko.
- Tratamendua beharrezkoa izatea interes publikoaren aldeko eginkizun bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean.
- Maiatzaren 26ko 7/2021 Lege Organikoan, Arau-hauste penalak prebenitzeko, detektatzeko, ikertzeko eta epaitzeko eta zehapen penalak betearazteko tratatutako datu pertsonalak babesteari buruzkoan, aurreikusitako helburuak betetzeko tratamendua.
- 137/1993 Errege Dekretua, Armen Araudia onartzen duena.
- 1/2020 Legegintzako Dekretua, uztailaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen testu bategina onartzen duena.

Gordetzeko epea

Datuak jasotzea eragin zuten helburuak bete arte eta egon litezkeen erantzukizunak zehaztu arte behar den denboran. Artxiboari eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutakoa izango da aplikatzekoa.

Interesdunen kategoriak

- Ertzainak.
- Udaltzainak.
- Mugikortasuneko agenteak, polizia-laguntzaileak edo kidekoak.

Hartzaileen kategoriak (Datuak jakinaraztea)

- Segurtasun Indar eta Kidegoak.
- Udalak eta toki-administrazioako erakundeak.

Datuen kategoriak

- Identifikazio-datuak.
- Datu profesionalak.
- Enpleguari eta administrazio-karrerari buruzko datuak.
- Armarekin zerikusia duten arau-hauste administratiboei, identifikazioei, emateari, berritzeari, erretiratzeari edo suntsitzeari buruzko datuak.

Nazioarteko transferentziak

Ez da aurreikusten.

Segurtasun-neurriak

Ezarritako segurtasun-neurriak bat datoz urtarrilaren 8ko 3/2010 Errege Dekretuaren, Administrazio Elektronikoaren esparruko Segurtasunaren Eskema Nazionala arautzen duenaren, II. Eranskinean (Segurtasun-neurriak) aurreikusitakoekin.